



**2026KO EKAINAREN 29KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita seiko ekainaren 29an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo eta Joxemai Ormazabal Sukia.

Maialen Amundarain Irizar ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Gai zerrendan Landa Eremuko dirulaguntza sartzea proposatzen da. Aho batez onartzen da.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Jarrian, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2026ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 45 zenbakidun zerrenda, HAMAIRU MILA BERREHUN ETA ZORTZI euro ETA BERROGEITA BOST zentimokoa (13.208,45 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- LAZKAOKO ARESO KALEAN HAUR-PARKEKO JOLAS-EREMURAKO ESTALKI BAT ERAIKITZEKO OBRAREN 2. EGIAZTAGIRIA.-

Lazkaoko Areso kalean haur-parkeko jolas-eremurako estalki bat eraikitzeko obraren obra zuzendaritza daramaten Patricia Celaya Reoyo arkitektoak, Arretxe, S.L. enpresa-koak, eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lanen bigarren obra egiaztagiria egin dute. Bigarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA BI MILA BERREHUN ETA HAMAHIRU euro ETA BERROGEITA BI zentimo (142.213,42 €) gehi B.E.Z.ari dagokion HOGEITA BIDERATZI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA LAU euro ETA LAUROGEITA BI zentimo (29.864,82 €) da, guztira EHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI BI MILA ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI euro ETA HOGEITA LAU zentimo (172.078,24 €).

Lanak CARPAS ZARAGOZA, S.L. enpresa ari da burutzen.

Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, bigarren obra egiaztagiri hau onartu egin du.

IV.- ARESO KALEKO APARKALEKUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN 1. FASEA EGITEKO LIZITAZIO DEIALDIA ESLEITU GABE UZTEA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko maiatzaren 19ko bilkuran hartutako erabakia-
ren bidez, Areso kaleko aparkalekua urbanizatzeko proiektuaren 1. fasea gauzatzeko kon-
tratazio-espeditentea eta baldintza teknikoaren eta administrazio-baldintza partikularren agi-
riak onartzea erabaki zuen, baita lehiaketarako deialdia prozedura ireki sinplifikatu bidez
egitea ere.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2026ko maiatza-
ren 22an, eskaintzak aurkezteko azken eguna 2026ko ekainaren 11 izanik.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, Euskadiko Kontratazio Publikoa-
ren Plataformak bidalitako jakinarazpena jaso zen, aldi horretan proposamenik aurkeztu
ez zela adieraziz.

Hori horrela izanik, Kontratazio Mahaiak, 2026ko ekainaren 12an egindako bilkuran
Kontratazio Organoari esleipen-espeditentea esleitu gabe uzteko proposamena helaraztea
erabaki zuen.

Horren guztiaren aurrean, eta Kontratazio Mahaiaren proposamenaren aurrean,
Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehena.- Areso aparkalekuko urbanizazio proiektuaren lizitazio deialdia esleitu gabe uztea.

Bigarrena.- Erabaki hau Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman argitaratzea.

V.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZ GAS NATURALAREN HORNIDURAREN KONTRATUAREN ESLEIPENA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2023ko azaroaren 14ko erabakian jasotako eskuordetza
medio, Gobernantzako Foru Diputatuak 2026ko ekainaren 11ko Foru Aginduen bitar-
tez, EDP CLIENTES, S.A.U. (NIF: A74472911) enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentrala-
ren bitartez gas naturalaren hornidura kontratatzeako Esparru Akordioa" burutzea ebatzi
zuen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espeditenteari
atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko
otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluen arabera, esparru akordioan oina-
rritutako kontratua adjudikatzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin Esparru Akordioa izenpetu ondoren, Udal Teknikariak 2026ko ekainaren 17-
an emandako txostenaren arabera, aipatu horniduraren beharra dela eta, gas naturalaren
hornikuntzari buruzko kontratua, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari
adjudikatzea proposatzen du.



Administrazio honek kontratatu beharko duen hornidura zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko BERROGEITA HAMABI MILA euro (52.000,00 €)ko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua EDP CLIENTES, S.A.U. (NIF: A74472911) enpresari adjudikatzea, izenpetutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

LEHENENGO.- Adjudikatzea EDP CLIENTES, S.A.U. (NIF: A74472911), enpresari, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez gas naturalaren hornidura kontratatzeako Esparru Akordioan" oinarritutako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- Kontratua 2026ko uztailaren 1etik aurrera sartuko da indarrean.

HIRUGARREN.- EDP CLIENTES, S.A.U. (NIF: A74472911) enpresaren alde baimentzea eta xedatzea, aurtengo ekitaldiari dagokion BERROGEITA HAMABI MILA euro (52.000,00 €)ko gastua, 1 221.04 partida gastu taldearen kargura.

VI.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- San Benito Ikastola.-
San Benito Ikastolari, 2026ko II. Kulturartekotasun jaialdirako jakiak eta eskulan gaiak erosteko 2.011,83 €tako dirulaguntza ematea.
- Pako Sáez Sandonis.-
Palestina Lazkao taldeari, 2026ko maitzaren 30ean Palestina Eguna antolatzeagatik 1.000 €tako dirulaguntza ematea.
- Kilometroak Kultur Elkartea.-
Kilometroak Kultur Elkarteari, 2026ko urriaren 4ean Kilometroak antolatzeko dirulaguntzaren lehen zatia ematea, 12.000 €.
- Aho Lehor Fest.-
Aho Lehor Fest taldeari, 2026ko urriaren 10an VI. Aho Lehor Fest jaialdia antolatzeko dirulaguntzaren lehen zatia ematea, 4.500 €.

VII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Euskara ikasten ari direnei.-

2025/2026 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bat izan da eta emango zaien kopurua 330,00 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2026ko aurrekontuaren 480.01.335.00 partidatik.

VIII.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

- Lazkao Txiki Musika Eskolari.-
2026. urterako aurreikusitako dirulaguntzaren azken zatia, hau da, 39.000 €, orain ordaintzea.
- San Benito Ikastolari.-
Udalaren eta San Benito Ikastolaren artean 2026an izenpetutako hitzarmenaren arabera, urteko dirulaguntzaren lehen zatia ematea. Hau da, 11.500 € ematea jarduera desberdinen antolaketarako.

Ordainketa udal aurrekontuaren 481.02.323.00 partidatik egingo da.

- San Benito Ikastolari.-
Udalaren eta San Benito Ikastolaren artean 2026an izenpetutako hitzarmenaren arabera, urteko dirulaguntzaren lehen zatia ematea. Hau da, 17.000 € ematea ikastetxearen mantenu gastuak direla eta.

Ordainketa udal aurrekontuaren 481.02.326.00 partidatik egingo da.

IX.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzordeak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-
Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2026ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatariek bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien hirugarren ordainketa egitea proposatzen da:

MERKATARIA	GUZTIRA	DIRULAGUNTZA
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	650,00	162,50
FONTANERIA GOMEZ SL	1.080,00	270,00
JON SANTOS MARTIN	125,00	31,25
FONTANERIA GOMEZ SL	480,00	120,00
AGURTZANE MIGUEL RODRIGUEZ	45,00	11,25



FONTANERIA JESUS GOMEZ SL	120,00	30,00
LEIRE CONDE ABELLA	820,00	205,00
MARIANA OSTERTAG (MAMUFO)	85,00	21,25
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	1.575,00	393,75
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	860,00	215,00
AMAIA SUKIA (AMETS BAT)	905,00	226,25
JOSE ANTONIO INSAUSTI (ESTANKOA)	1.280,00	320,00
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	1.005,00	251,25
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAPAINDEGIA)	1.615,00	403,75
JOANA PLASENCIA (XANU)	1.770,00	442,50
NAGORE COLORADO (MANAKO)	1.630,00	407,50
OREKA OKINDEGIA SL	260,00	65,00
LEIRE VELASCO (LEIRE ESKULA)	415,00	103,75
LIERNI FERNANDEZ (NARE)	300,00	75,00
AMAIA SORAZU (EKILORE)	245,00	61,25
RAKEL OIARBIDE (EIRE ILEAP.)	205,00	51,25
GERRIKO SL	265,00	66,25
AINHOA OLARAN (FISIO ZENTRUA)	345,00	86,25
RAKEL GARCIA (PRANAQI)	230,00	57,50
JOANA PLASENCIA (XANU)	30,00	7,50
JOSE IGNACIO RUEDA (FRUTAS RUEDA)	75,00	18,75
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	375,00	93,75
MARIANA OSTERTAG (MAMUFO)	20,00	5,00
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	4.305,00	1.076,25
JOSE ANGEL MATIAS (FRUTA DENDA)	2.225,00	556,25
ARTANO ETA LORENA SL	1.845,00	461,25
PELLO BIDEGAIN (HARATEGIA)	1.955,00	488,75
URTEAGA PENTSUAK SL	620,00	155,00
MªCARMEN AGUADO (AGUADO ESTANKOA)	1.960,00	490,00
KEPA ORTUÑO GARMENDIA (GARAIZ)	1.820,00	455,00
MIREIA ESTEVEZ (KOBLOI)	325,00	81,25
GOITIA AUTOESKOLA SL	555,00	138,75
OREKA OKINDEGIA SL	20,00	5,00
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAPAINDEGIA)	5,00	1,25
MIGUEL Mª ARAKAMA (HARATEGIA)	1.185,00	296,25
AMAIA SUKIA (AMETS BAT)	15,00	3,75
IDOIA MATXINANDIARENA (ILEAPAINDEGIA)	1.425,00	356,25
PEDRO PEREIRO FARMAZIA	1.215,00	303,75
IDOIA MANTXINANDIARENA (ANA BELEN)	120,00	30,00
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAPAINDEGIA)	30,00	7,50
GARAZI ZUFIRIA INSAUSTI (ARRIARAN)	290,00	72,50
GUZTIRA	36.725,00	9.181,25



Dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainketa, aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

X.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2026ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat nekazal ekoizlek jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien ekoizleen lehengo ordainketa egitea:

EKOIZLEA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
ASIER MUXIKA ZUBIARRAIN	810,00	347,14
GUZTIRA	810,00	347,14

Dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainketa, aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak azaldu du, azkeneko gobernu batzordean EH Bilduk Agauntza erreforma izandako isuriaren inguruan txostena egitea eskatu zuela eta jakin arazten du Ertzaintza, Udaltzaingo eta URAk egindako txostenak bidali zaizkiela. Falta da udaleko teknikariaren txostena bidaltzea oraindik bukatzeko bait dauka.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio, Aresoko parkeko atzerapenen arrazoia zein den galdetzen du.

Alkateak azaldu du, obra batek normalean ekartzen dituen atzerapenak izan direla arrazoi. Obra hastean agertzen diren ezustekoak, estrukturan aldaketa batzuk proposatu ziren non teknikoek oniritzia eman zien. Aste honetarako lurra eta argia jartzea aurreikusi-ta dago.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio, Bionan indusketa makinen bat dabilela esan diote.

Alkateak azaldu du, ez duela makinak etorri diren berririk baina Bionako presa botatzeko lanak izango direla, Foru Aldundiak baimena eskatuta daukala eta teknikariarekin aurrez egonak direla bertan.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

